

Ikaskide berriak

–Kaixo. Elene naiz. 20 urte ditut. Bartzelonakoa naiz, baina Portugaleten bizi naiz beste bi lagunekin. Alaia eta berritsua naiz, baina, haserretzen naizenean, jenio handia daukat. Orain, kazetaritza ikasten ari naiz eta asteburuetan zerbitzari-lana egiten dut kafetegi batean. Nire ametsa irrati-esataria izatea da.

–Hepa. Ni Markel naiz. 19 urte dauzkat, Muskizekoa naiz, eta Muskizen bizi naiz aitarekin eta arreba nagusiarekin. Isila eta lotsatia naiz, baina bihurria naiz, eta, askotan, adarra jotzen diet ingurukoei. Batxiler artistikoa ikasten nabil eta nire ametsa eskultorea izatea da, baina asko ikasi eta lan egin behar dut horretarako. Asteburuetan, aitari laguntzen diot fruta-dendan.